



Europar Batasuna Suspertzeko Plan baterako euskal ikuspegia

Testuingurua

COVID19 pandemiak Europako agintarientzat "Administrazio publikoen kontroletik kanpo dagoen ezohiko egoera" gisa hartzea merezi du. Egoeraren larritasunaz eta salbuespen izaeraz hasiera-hasieratik jabetuta, Europako erakundeek azkar erreakzionatu dute, eta ezohiko arintasunez hartu dute osasun-krisiari eta horrek eragiten dituen ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko beharrezkoa den malgutasuna.

Duela gutxi jakinarazi da ondorio ekonomiko horien eragina. Horrela, Eurostatek euroguneko eta Europar Batasuneko estimazioa zabaldu du. Lehenengo kasuan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta beherakada % 3,8koa izan da, eta bigarrenean % 3,5koa. Urte arteko tasak -% 3,3 eta -% 2,7 dira hurrenez hurren. Espainiako Estatuaren kasuan, uzkurdura are handiagoa da, Espainiako ekonomiak hiruhileko batetik bestera % 5,2ko beherakada izan baitu, urte arteko tasan % 4,1koa. Horiek guztiak aurrekaririk gabeko zifrak dira Europako ekonomien oraintsuko historian. Atlantikoaren beste aldean egoera ez da hobea. Ameriketako Estatu Batuetako azken urteetako hedapen-ziklo luzeena hiruhilekoen arteko % 4,8ko beherakadarekin amaitu da, baina kasu honetan, urte arteko tasa oraindik ere pixka bat positiboa da (% 0,3).

Konfinamendu-neurriek ekonomian izan dituzten ondorioak lehen hiruhilekoko azken bi asteetan soilik izan direla kontuan hartuta, bigarren hiruhilekoko datuek are gehiago sakonduko dute munduko ekonomien uzkurtze historiko horretan.

EBko erakunde nagusiek, datu horiek jakin arte itxaron gabe, jarduera kuantitatibo eta kualitatibo garrantzitsuak abiarazi dituzte ondorio ekonomiko horiek arintzeko. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Europako Banku Zentralaren jarduera zorra eskuratzeko programarekin, EBko herrialdeen zorraren arrisku-primak igotzea saihesteko, 750.000 milioi eurorako kopuruarekin;
- Europako Batzordeak abiarazitako CRII eta CRII+ ("Coronavirus Response Investment Initiative") bi programei esker, erantzun arin eta eraginkor batean, 2014-2020 aldian gauzatzeke dauden kohesio-funtsak krisiaren ondoriozko osasun- eta ekonomia-gastuei aurre egiteko erabili ahal izan dira;
- Eurotaldeak joan den apirilaren 9an onartzea eta ondoren Europar Batasuneko Kontseiluak apirilaren 23an berrestea 540.000 milioi euro likidezia-lerroetan estatuentzat (Egonkortasunerako Europako Mekanismoaren bidez), enpresentzat (Europako Inbertsio Bankuaren bidez) eta kaleratze masiboak saihesteko (SURE Programa Berriaren bidez).

Hala ere, Europako Batzordeak berak onartzen du, EBren aurrekontuaren tamaina mugatua denez, erantzun nagusia estatu kideen aurrekontuetatik etorriko dela. Ildo



horretan, Europako Batzordeak joan den martxoaren 19an Aldi Baterako Marko bat onartu zuen, estatu kideei estatuko laguntzei buruzko arauetan aurreikusitako malgutasun osoa erabiltzeko aukera ematen diena, COVID-19ren agerraldiaren testuinguruan ekonomia babesteko. Aldi Baterako Esparru hori apirilaren 3an berrikusi zen, baimendutako laguntza-motak zabalduz.

Marko horrek erreferentzia gisa hartzen du Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikulua horri buruz dioena. Horrela, aipatutako Tratatuaren 107. artikulua 3. apartatuko b puntuan jasotako salbuespenarekin, Aldi Baterako Markoak bost laguntza-mota aurreikusten ditu:

- Zuzeneko diru-laguntzak, onura fiskal selektiboak eta aurrerakinak;
- Bankuek enpresei emandako maileguetarako estatu-bermeak;
- Hobaridun mailegu publikoak enpresei;
- Estatuaren laguntza ekonomia errealerara bideratzen duten bankuentzako babesak;
- Esportaziorako epe laburreko kreditu-asegurua.

Apirilaren 3an, baimendutako laguntza-motak zabaldu ziren, honako hauek barne:

- Koronabirusaren arloko ikerketa eta garapenerako laguntza (I+G);
- Saiakuntza-laboretegiak eraikitzeko eta hobetzeko laguntza;
- Koronabirusaren agerraldiari aurre egiteko balio duten produktuak fabrikatzeko laguntza;
- Laguntza espezifikoak zergen ordainketa atzeratzeko edo Gizarte Segurantzako kotizazioak eteteko;
- Berariazko laguntza, langileentzako soldata-sorospen gisa;

Hala ere, Batasuneko estatuak horrelako "bazokak" zabaltzeko duten gaitasun desorekatuak distortsio berriak sortuko ditu herrialdeen artean, eta barne-merkatua ahulduko du. Izan ere, erantzun nagusiaren pisua estatuera eramatean, barne-merkatuak porrot egiteko arrisku argia dago. Aldi Baterako Marko hori aplikatzeak herrialdeen arteko asimetriak areagotuko ditu, defizit berriak onartzeko, zor berrietara jotzeko eta abarretarako duten gaitasunaren arabera. Asimetria horiek, gainera, indartu egingo dira osasun-krisiak EBko estatuengan izan duen inpaktu desberdinagatik (ospitaleratzeen, ZIUko sarreraren eta hildako pertsonen kopuruaren eta biztanleriaratioen arabera neurtuta). Era berean, estatuen ekoizpen-egiturak eta espezializazio sektorialak baldintzatu egingo dute osasun-krisiaren eragin ekonomiko eta soziala, krisi horren ondorengo konfinamendu- eta deseskalatze-neurriek eragin desberdina izango baitute.

Gogoeta horien guztien ondorioz, Europako erakundeek bigarren mailako erantzuna eman behar dute. Hala, epe ertainean barne-merkatua indartzeko, ezinbestekoa da Europa suspertzeko plan bat egitea. Europako ekonomia osoaren uzkuradura handiari aurre egin ahal izateko, eta Aldi Baterako Markoaren eta pandemiarekin lotutako beste neurri batzuen ondorioz ahuldu eta zatitu egingo den barne-merkatua lehengoratzeko.



laguntzeko Susperraldi Plan bat. Susperraldi-plan horrek hazkunde jasagarria eta inklusiboa bultzatu beharko du, EBko lurraldeen erresilientzia-gaitasuna indartuz, lehentasunez gehien kaltetutako estatu eta eskualdeei (NUTS 1 eta 2) arreta emanez, honako irizpide hauen arabera:

1. aurrekontu-maniobrarako gaitasun txikiagoa,
2. pandemiaren eragin-maila eta
3. Konfinamenduaren ondorio ekonomikoek gehien eragin dieten ekoizpen-sektoreen pisu erlatiboa.

Ez da bakarrik aurreko hiru irizpideen arabera gehien ukitutako estatu eta eskualdeekiko elkartasun-arazoa, baizik eta barne-merkatua babestea. Zentzu horretan, helburua merkatu bakarraren eta, bereziki, euroaren funtzionamendu egokia higitzen duten desoreketan eta asimetrietan gehiago ez sakontzea litzateke. Gainera, asimetria horiek populismoak gaizkiagotzen dituzte, eta eragin erreala izan dezakete azpiegiturretako atzerriko inbertsio zuzenen bolumenean, eta, ondorioz, baita EBko eremu estrategikoetan ere, Europako proiektuaren etorkizuna arriskuan jarritz.

Barne-merkatuaren barruko interdependentziak hain dira handiak, ezen, gaur egungo merkataritza-gerren, klima-aldaketaren aurkako borrokaren eta trantsizio digital eta demografikoaren testuinguruan, barne-merkatuaren haustura eragin baitezakete, eta, azkenean, Europar Batasunaren oinarriak atzera bueltarik gabe higitu.

Europar Batasunaren barruko interdependentziek agerian uzten dute herrialde guztiek elkarren artean duten beharra. Hala, honako hauek nabarmendu beharko lirateke:

1. Gutxiago estimatzen den euro batek herrialde esportatzaileei mesede egin diela;
2. Kohesio Politikak bi bidetatik egin diela mesede herrialdeei: batetik, jasotako transferentziengatik, eta, bestetik, barne-merkatua zabaltzean izan duen eraginagatik;
3. UEMak kreditu-politikak sustatu dituela, herrialde defizitarioen arrisku-sarien diferentzialak baliatu dituzten herrialde soberakinei mesede eginez, izan ere hauek kapitalak errentagarritasun handiagoko baldintzetan kokatu dituzte.

Une honen larritasuna dela-eta, Europakoa bezalako proiektu integratzaile eta interdependente batek Batasunaren ekosistema indartuko duten politikak abian jartzea lortu behar du.



EBko Berreskuratze edo Suspertze Planaren ezaugarriak: transferentzien eta maileguen arteko konbinazio proportzionatua

Azaldutakoa kontuan hartuta, Europarako susperraldi-plana barne-merkatuaren funtzionamendua bermatzeko eta indartzeko helburuarekin garatu beharko litzateke.

Horrek eskatzen du herrialde desberdinen esku hartzeko gaitasunak parekatzea, lehen aipatutako hiru irizpideak kontuan hartuta (aurrekontu-maniobrarako gaitasun txikiagoa, pandemiaren eragin-maila eta konfinamenduaren ondorio ekonomikoek gehien erasandako ekoizpen-sektoreen pisu erlatiboa), horiek zehaztuko bailukete suspertze-funtserako sarbide-maila.

Horretarako, beharrezkoa da transferentzien eta maileguen konbinazio bat izatea, lehen erantzun-fasean sortutako desorekak konpentsatzeko eta eragin sanitario, ekonomiko eta sozial handiena izan duten herrialdeei arreta handiagoa emateko.

Pandemiak modu desberdinean jo ditu EBko herrialdeak, eta ekonomietan ere ondorioak desberdinak dira. Hala ere, estatu gehienek *koma bat eragin* behar izan diete beren ekonomiei. COVID-19k eragindako pazienteek beren eragin-mailaren arabera osasun-arreta behar izan duten bezala, Europako ekonomiek ere jasandako inpaktuaren izaeraren eta larritasunaren arabera arreta jaso behar dute. Eta nola ez dago paracetamolarekin sendatzen den paziente infektaturik beste batek arnasmailu bati esker sendatu delako diskriminatuta senti daitekeenik, hala maileguen bidez suspertutako EBko estatu batek ere ez luke diskriminatutzat jo behar beste batek transferentzietara jo behar izan duelako. Hori izan beharko litzateke EBren bertutea.

Gainera, susperraldi plan hori bat etorri beharko litzateke (eta horretarako sarbidea baldintzatu) hurrengo hamarkadarako bi jarduera-ardatz nagusiekin, hau da, EBrako Itun Berde Berriarekin eta Trantsizio Digitalarekin, bi erronka orokor horiek tokiko erantzunak eskatzen baitituzte.

Transferentzien mekanismo berria 2021-2024

Europarako orain arteko transferentzia-planik handiena, Marshall Plana (1948-1951), egungo 230.000 milioi dolarrekoa izan zen¹. Transferentzia-mekanismo berriak asmo handikoa izan beharko luke, eta haren ahaleginaren pareko zuzkidura lortu. 2021-2024 aldirako itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen bidezko transferentzia-programa bat izan beharko litzateke. Herrialde eta eskualdeen (NUTS 1 eta 2) arabera banaketa arestian aipatutako hiru faktoreen arabera izango litzateke: aurrekontu-maniobrarako gaitasuna, pandemiaren eragin-maila eta gehien kaltetutako ekoizpen-sektoreen pisu erlatiboa.

¹1948ko 13.000 milioiak 140.000 milioi dolarren parekoak dira 2020an. Gainera, kontuan hartzen badugu kopuru hori 500 euro baino pixka bat gehiago zela biztanleko (plan horren onuradun ziren 18 herrialdeetako biztanleak batuta), egungo EB-27n guztira 230.000 milioi euro izango lirateke.



Horrez gain, kontuan hartu beharko litzateke herrialde onuradunen fiskalitateak ez duela paradisu fiskalak sortzea bultzatu.

Transferentzien Plan Berriak EBren Itun Berdearekin eta EBko estatu eta eskualdeetan (NUTS 1 eta 2) dagozkion erreplikekin lotutako inbertsioak eta jarduerak finantzatuko lituzke, baita eraldaketa digitala ere. Bi eraldaketa horiek bultzatzeak, nolana ere, hazkunde inklusiboa bermatu beharko luke Estatu bakoitzaren barruan eta EB-27ko estatu kideen artean.

2021-2024 Inbertsio Plan berria

Aldi berean, *Inbertsio Plan Berri* bat artikulatuko zen (bere lehen diseinuan, Juncker Planaren eta horren ondorengo INVEST EU izendapenen forman, 315.000 milioi euroko aurrekontua lortu zuen). Plan horrek ekimen publikoak zein pribatuak ainguratuko lituzke. Ekimen publikoen kasuan, kreditu horiek ez lirateke zenbatuko Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunaren ondorioetarako. *Transferentzien Plan Berriarekin* bat etorritz, EBren barruko eta kanpoko paradisu fiskaletan egoitzak dituzten enpresa europarrek ezin izango dute *Inbertsio Plan Berri* honen kreditu-lerroaren onuradun izan. Era berean, ekimen publiko, pribatu edo publiko-pribatu guztien helburua izango litzateke EBren Itun Berdeari eta Trantsizio digitalari buruzko erronkei heltzea.

Susperraldi Plan Berri bat, bi tresnarekin (transferentzia eta maileguak) Kohesio-politikaren Funtsekin lerrokatuta eta Urte Anitzeko Finantza-esparru Plusaren esparruan (2021-2027)

Susperraldi-plana abian jartzeko, transferentzietan eta maileguetan datzana, asmo handiko apustua egin behar da EBren aurrekontua gutxienez errenta nazionalaren % 2ra arte handitzeko.

Susperraldi Plana oro har 2021-2027 MFParrekin eta, zehazki, Kohesio Politikaren Funtsekin lerrokatuta egon dadin, bi tresnen arteko koordinazio- eta koherentzia-maila handia lortzeko beharra planteatzen da, Europar Batasunaren lurralde-, ekonomia- eta gizarte-kohesioko helburuak partekatzen baitituzte.

Une horren larritasunak Europar Batasunaren (eta bere kideen) anbizio handiko erantzuna eskatzen du, sortu zenetik izan duen erronkarik garrantzitsuenari aurre egin behar diona. Horregatik, beharrezkoa da erantzun adimentsu eta ausart bat ematea, Europaren interes komuna kontuan hartuko duena eta irtenbide *ekosistemiko* bat eskainiko duena, kideen artean gero eta mendekotasun handiagoa dagoela aitortuko duena egungo ohiz kanpoko egoeran.

Beharrezkoa da EBko herritarrak proiektu batekin adiskidetu dituen erantzun bat ematea; proiektu horrek, agortuta egon beharrean, bakoitza bere aldetik lortu ezin izango lituzkeen irtenbide batzuk eskaintzeko gai dela erakustea. Ez du ezertarako balio herrialde batek modu isolatuan iraunkortasunaren bidetik aurrera egiteak, gainerako



bazkideek egiten ez badute. Horrela aurrera egiteak azkar joatea oso urrutira ez iristeko besterik ez du esan nahi. Modu kolektiboan aurrera egiteak, agian, motelago aurrera egitea dakar, baina urrunago iritsiko dela ziurtatuz.